




2020an, EAeko biztanleen erdiek administrazio elektronikoa erabili zuten

20 urte pasa behar izan dira hamar enpresatik bederatzik baino gehiagok administrazio elektronikoa erabiltzeko

e-Administrazioa lehen sektorean
e-Administrazioa administrazio publikoetan
e-Administrazioa eta pertsonak

e-Administrazioa enpresetan

G.1. Euskal Autonomia Erkidegoan azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. 2000-2019.



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

EAeko hamar establezimendutik bederatzik baino gehiagok, % 93,5ek (guztira 152.659 establezimendu), lehen sektorekoak, etxeko zerbitzukoak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak izan ezik, administrazio elektronikoa erabili zuten 2019an¹, zuzenean edo hirugarrenen bidez.² 10 enplegu edo gehiagokoen kasuan, % 96,7 izan ziren, 2018an baino ehuneko puntu bat gehiago, Eustaten datuen arabera. Erabilera edo elkarrekintza askotarikoa izan da: informazioa

¹ Administrazio Elektronikoaren erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jasotzekoa, urte bat beranduago baita.

² 2016ko bilketan, izapideak eta prozedurak egin edo informazioa jaso euren zuzenean egiten zituzten establezimenduez gainera, ekintza horiek hirugarrenen bidez egiten zituzten establezimenduak ere jaso ziren. 2017koan (2016ko emaitzak), Internet eduki gabe administrazio elektronikoa erabiltzen dutenak sartu ziren.

eskuratzetik inprimakiak deskargatzera edo prozedurak edo izapideak oso-osorik teleizapidetzera.


Datuak ditugun azken 20 urteetan, hainbat aldi ikus daitezke: 2000tik 2008ra bitartean, enpresek askoz gehiago erabili zuten administrazio elektronikoa, hots, zortzi aldiz baino pixka bat gehiago handitu zen erabilera, eta, aldi berean, errolda 31.509 unitate baino pixka bat gehiago hazi zen.

2009tik 2013ra, krisi ekonomikoan bete-betean, aurreko aldiko establezimenduen saldo positiboaren zati handi bat galdu zen, 30.123, eta moteldu egin zen administrazioekiko interakzioaren hazkundera Internet bidez: azken bost urte horietan, % 7,3 igo zen. 2013tik 2014ra, 3.410 establezimendu gehiago izan ziren Administrazio Elektronikoaren erabiltzaile, hau da, urte arteko % 3,8ko hazkundera egin zen.

2015eko datuek haustura erakusten dute 2000-2014 seriearekin alderatuta: 25.355 establezimendu gehiago sartu dira (% 27,1 gehiago), metodologia-aldaketarengatik neurri handi batean.

2016an, beste 26.173 batu ziren, % 22 gehiago, ia erdia, administrazio elektronikoa erabili arren Interneteko konexiorik ez daukaten establezimenduak ere zenbatzeari lotutako metodologia-aldaketarengatik (guztira 14.727, hamar establezimendutik bat). Beraz, metodologia-jauzia baztertuta, hazkundera nabarmena izango litzateke, % 9,6koa.

G.11 Internet duten establezimenduak, administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2019. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

2016tik 2017ra, igoera % 3,5koa izan zen, 5.097 establezimendu gehiago.

2017tik 2018ra, % 1,3 establezimendu gehiago (2.024) hasi zen administrazio elektronikoa erabiltzen. Kopuru hori 2012. urteko datutatik hurbil dago (aipatu aldaketa metodologikoak kontuan hartu gabe). 2013. urtetik aurrera, guztira 165.000 establezimendu inguruk erabili dute, gorabehera (galera) gutxi batzuekin; beraz, administrazio elektronikoaren erabilerak izan duen hazkundera garbia da.


2018tik 2019ra bitartean, administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen hazkundea % 0,4ra murriztu da; beraz, azken 20 urteotan enpresen erabileraren hazkunde handia dela eta, % 100era iristea motelagoa izango delakoan gaude.

G.2 . Establezimendu kopuruaren eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2019. Δ%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

G.3 Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2019. %




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Lau establezimendutik hiruk, % 73,9k, beste erakunde batzuk behar dituzte administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko.

Proporzio hori 10 enplegu edo gehiagoko enpresa bakoitzaren erdia baino gehiagora iristen da, % 57,8ra, eta azken urteotan pixka bat hazteko joera dago.

G.4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2019



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa

Kontuan izan behar da enpresek eta euren establezimenduek administrazio-kudeaketan zati bat zuzenean egin dezaketela eta, aldi berean, hirugarrenengana jo dezaketela beste kudeaketa batzuk gauzatzeko: 10 enpleguko eta gehiagoko enpresen % 84k zuzenean izapidetzen dute, eta establezimendu guztien erdiek, % 51,8k.

Ziurrenik, erakunde horiek aro digitala baino lehenago hirugarrenen bitartez egiten zituzten kudeaketak oraindik ere elektronikoki egiten dituzte, establezimenduaren tamaina eta ahalmen informatikoak edozein izanda ere.

Establezimenduen eroldaren saldoa nahiko egonkorra izan da azken urteetan; horregatik badirudi administrazio elektronikoaren erabileraren hazkundera garrantzi handia izan dutela aipatutako metodologia-aldaketek, baita administrazio publikoen eta sektore ekonomikoen arteko Internet bidezko harremanen bilakaera positiboak ere.

2018 eta 2019 bitartean, nabarmen hazi dira bide elektronikoz egindako BEZaren aitortpenak, 5 ehuneko puntu, eta establezimenduen % 79,4k erabili zuten bide

elektronikoa. Halaber, Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenak 4,2 puntu egin du gora, eta gizarte-kotizazioenak, 3,5.

Administrazio elektronikoa erabiltzen den sofistikazio-mailari dagokionez, establezimenduen % 52,1ek prozedura elektronikoa bat osorik izapidetzea lortu du, 2018an baino 3,1 ehuneko puntu gutxiago. Gogoratu behar da 2011 eta 2017 urteen artean bikoiztu egin zela ehuneko hori, 7 urteko tartean.

Bete diren formularioak administrazioei elektronikoki itzultzeko aukera % 57 ingurukoa da 2018tik 2019ra bitartean. Inprimakiak eta formularioak lortzea 2,7 ehuneko puntu jaitsi da, eta gutxiago informazioa bilatzea, 1,8.

Toki-erakundeak eta Eusko Jaurlaritza³ dira administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduetan beherakada handiena izan dutenak azken urtean: % 6,3 lehen kasuan eta % 5,6 bigarrenean. Gogoratu behar da 2017 eta 2018 artean % 10 baino pixka bat gehiago hazi zirela.

% 6,4 igo dira Europar Batasunarekin harreman elektronikoa duten establezimenduak.

Erakundeen rankingaren buruan foru-aldundiak daude (% 86,6), eta gero, administrazio zentrala (% 71,8) eta Eusko Jaurlaritza (% 51,3).

Kontuan hartu behar da establezimendu guztiak ez daudela behartuta administrazio guztiakin izapideak egitera eta, kasu batzuetan, enpresa bereko beste establezimendu batzuek egiten dituztela izapideak.

Jakina, foru-aldundietan eta administrazio zentrolean, hurrenez hurren, zergak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko nahitaezko izapideen garrantzia nabarmena da.

10 enplegu edo gehiagoko establezimenduei dagokienez, joera ekonomikoa aldatu egin da: 2008 eta 2015 artean establezimenduen % 17,2 galdu ondoren (1.911, guztira), urte horretatik 2019ra % 12,8 eta 1.406 unitate gehiago berreskuratu dira.

2015etik 2019ra, administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimendu horien errolda ia % 20 handitu da, 2.190 unitate gehiago.

Foru-aldundiak (administrazio elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen % 86,7) 10 enplegu edo gehiagoko rankingaren buruan daude, 2018arekin alderatuta, 1,7 ehuneko puntu gehiagorekin. Ostean administrazio zentrala dago, % 85,9. Eusko Jaurlaritzarekin lau establezimendutik hiru jartzen dira elektronikoki harremanetan, % 76,4.

Europar Batasunak ere bere mailari eusten dio, 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen % 21,8ri. Toki-erakundeek ehuneko puntu bat egin dute behera, hots, erabiltzaileen % 47.

³ Eusko Jaurlaritzan sartzen dira haren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, enpresa-sektore publikoa, partzuergoak, fundazioak eta abar.


TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2019. %

	Guztira										Eusko Jaurlaritza										Foru aldundiak									
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019			
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	47,2	50,3	54,5	57,0	71,8	87,8	91,0	93,0	93,5	34,3	33,3	36,2	36,5	38,7	41,8	48,7	54,2	51,3	39,4	43,4	45,1	46,8	64,8	73,4	83,5	84,1	86,6			
Informazioa lortzeko	41,7	43,8	44,3	46,5	52,2	58,0	66,5	70,0	68,2	30,8	31,0	32,9	33,2	31,3	37,0	41,2	42,6	41,6	32,1	35,5	36,7	37,7	43,2	47,2	50,9	55,7	56,0			
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	39,3	40,7	42,5	44,7	53,2	57,1	65,1	67,4	64,7	24,9	26,1	27,5	27,9	29,5	33,6	36,7	36,7	34,3	30,1	33,1	35,5	35,5	43,2	46,3	51,4	54,9	53,4			
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	32,0	33,9	31,3	33,7	42,7	45,3	55,4	57,5	56,8	19,4	19,9	19,8	20,3	22,3	23,8	29,8	30,8	30,8	24,3	27,2	26,0	26,2	34,8	35,8	42,1	46,5	45,8			
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	25,3	22,5	20,3	23,5	36,4	37,3	50,3	55,2	52,1	13,6	11,8	11,2	12,6	16,7	18,7	25,2	31,8	26,6	18,0	16,5	14,4	16,6	27,6	26,8	36,4	39,3	38,2			
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	6,0	5,6	5,2	5,3	10,0	9,8	15,8	17,3	19,3	3,2	2,8	2,9	2,9	4,4	4,5	7,3	8,0	9,8	3,1	3,5	3,0	3,1	6,5	5,5	8,7	9,3	10,2			
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	17,3	27,1	28,4	28,2	44,2	56,7	57,5	61,1	64,6	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-			
Sozietate-Zergaren adierazpenarako	21,3	30,6	29,5	30,2	45,4	62,9	57,1	56,9	61,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	18,7	26,2	25,2	25,5	40,3	50,3	49,3	50,0	55,7			
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenarako	25,1	34,4	34,7	34,2	55,0	72,8	73,3	74,4	79,4	-	-	-	-	-	-	-	-	-	22,3	29,6	28,2	28,7	51,0	58,4	67,7	67,9	73,9			
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,4	4,6	4,9	5,4	9,3	9,2	11,6	12,7	11,5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0,9	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	1,8	1,8	1,8	1,7	2,9	6,1	7,5	10,3	11,4	0,6	0,4	0,4	0,4	0,8	0,6	3,0	1,3	7,0	0,9	1,2	0,9	1,0	1,6	4,6	3,6	7,0	3,5			


TAB. 4.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, erakunde eta izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2011-2019. % (Jarraip.)

	Toki-erakundeak										Administrazio Zentrala										Eiropar Batasuna eta beste batzuk									
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019			
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	20,1	21,6	22,3	21,7	21,0	27,5	26,5	29,7	27,9	28,6	35,9	39,6	39,2	51,7	67,9	67,6	72,3	71,8	6,0	5,1	4,9	6,2	7,4	7,2	8,8	9,8	10,4			
Informazioa lortzeko	17,7	20,0	20,7	20,3	18,2	24,7	22,6	25,8	22,5	18,9	17,3	21,2	22,4	20,6	24,4	22,8	25,8	28,2	5,2	4,4	4,0	4,7	5,7	5,6	6,9	7,0	7,5			
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	13,1	15,6	15,8	15,8	14,3	21,0	18,0	20,3	19,1	15,4	13,5	17,2	18,3	17,4	21,5	19,6	20,5	21,4	3,3	2,4	2,6	3,5	3,2	3,5	4,3	4,6	5,1			
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	8,1	10,0	8,9	9,3	10,2	12,7	13,7	15,8	16,2	12,2	10,9	13,2	14,2	14,3	17,2	16,5	18,5	19,2	2,3	1,8	1,9	2,7	2,0	2,8	3,2	3,4	3,9			
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	5,7	4,9	4,5	4,9	6,9	8,8	9,8	11,4	12,8	9,5	8,1	8,0	9,5	12,2	13,1	14,7	16,5	17,1	1,7	1,5	1,5	1,7	2,0	2,6	2,9	3,3				
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	1,6	1,6	1,5	1,5	1,7	1,6	2,3	3,0	4,4	2,5	1,8	2,5	2,4	3,0	3,2	4,6	5,4	5,4	0,5	0,4	0,8	0,8	0,9	1,0	1,2	1,1	1,5			
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	-	-	-	-	-	-	-	-	-	17	27	28	28	43	56	57	60	64	0	0	0	0	1	1	1	1	1			
Sozietate-Zergaren adierazpenarako	-	-	-	-	-	-	-	-	-	5	7	11	11	10	17	12	12	10	0,3	0,1	0,0	0,0	0,4	0,5	0,3	0,2	0,3			
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenarako	-	-	-	-	-	-	-	-	-	6	7	13	11	9	18	10	13	11	0,2	0,1	0,0	0,4	0,5	0,7	0,3	0,6	0,2			
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4	4	5	5	9	9	11	12	11	0,2	0,1	0,5	0,5	0,5	0,8	0,7	0,7	1,5			
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,2	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4	0,7	0,8	1,0	0,4	0,6	0,5	0,6	1,0	1,1	1,3	2,3	1,3	0,0	0,0	0,2	0,1	0,1	0,3	0,3	0,5	0,6			

G.1.1.5.a Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2019.%



G.1.1.5.b Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2011-2019.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI Administrazioa



e-Administrazioa lehen sektorean

Lehen sektoreko bost establezimendutik lauk bide elektronikoa erabiltzen dute administrazio publikoekin harremanetan jartzeko, eta 10 enplegu edo gehiagoko estratuan hamar establezimendutik bederatzik aukeratu zuten bide hori 2018. urtean⁴

2012an administrazio elektronikoa erabiltzen zuten establezimenduak % 8,1 ziren; 2015ean, aldiz, % 35,2. Igoera hori hainbat faktorek azaltzen dute.

Lehenengoz, aztertu nahi den biztanleriaren aldaketak: lehen 17.000 ustiategi eta establezimendu aztertu ziren; 2015ean, aldiz, 6.000, nekazaritza eta abeltzaintza edo arrantza jarduera nagusi zutenak soilik ardatz hartuta.

Aldaketa horri zati batean lotuta, baina bilakaera bera baztertu gabe, nabarmentzen da enpresa horietan Interneten garrantzia 2012an % 16,8 zela, eta 2015ean, aldiz, % 51,1.

2015etik 2018ra hazkundera nabarmena izan zen: % 35,2tik % 85,1era igaro zen establezimendu guztietan, eta % 78,8tik % 98,5era 10 enplegu edo gehiago dituztenetan.

Aipatutako gehikuntzak justifikatzeko azalpen batzuk dira: administrazio publikoek zenbait prozedura eta izapidetan izapideak nahitaez online egin beharra, eta hirugarrenen izapidetzea eta bitartekaritza errazten duten APPen garapena. Gainera, 2018an e-Administrazioaren erabiltzailetzat jotzen dira internautak ez direnak (hirugarrenen bidez dabiltzanak), eta hori ez zen gertatu 2015ean.⁵


Zehazki, 2015. urtean, % 76,8 hirugarren pertsonen edo entitateen bidez sartzen zen administrazio elektronikora; 2018. urtean kopuru hori % 90,4raino igo zen.

Bestalde, izapideak zuzenean egiten dituztenen kopurua murriztu egin zen: 2015. urtean % 47,7 eta 2018an % 40,9.

⁴ *Administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko informazioaren erreferentzia-urtea adierazten da, ez informazioa jaso zen urtea, urte bat beranduago baita. Seriean jauzi baten berri eman behar da, funtsean bi aldaketa metodologikogatik: 2015etik aurrera, jarduera nagusia lehen sektorean egiten zuten establezimenduak soil-soilik ziren inkestaren xedea, aurreko edizioetan ez bezala; edizio horietan, jarduera hori bigarren mailakotzat zeukatenak edo besterik gabe nekazaritza-aktiboak dituztenak ere sartzen ziren. Bestalde, galdetegia moldatu da, administrazio publikoekiko harremana hirugarren bitartez duten establezimenduak kontabilizatzeko.*

⁵ *2016ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2015), ez zitzairen administrazio elektronikoaren erabilerari buruzko galderarik egin Internetera astean gutxienez behin konektatu ez ziren pertsonen. 2019ko inkestan (erreferentzia-urtea, 2018) ez zen beharrezkoa Internetera konektatzea e-Administrazioaren erabiltzaile gisa hartzeko.*


G.5.1 Lehen sektoreko establezimenduak administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduak, 2018an, 135 ustiatetik osatutako klub murriztua ziren; 10 kasutik ia 9tan (% 88,7) kontratatutako erakundeak baliatzen zituzten beren administrazio izapideak egiteko; 2015ean baino 4,4 ehuneko puntu gehiago. Egoera hori gertatzen da ustiatetik ertain eta handi horiek konplexuagoak direlako eta administrazioekiko harreman-bolumen handiagoa dutelako.

G.5.2 Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2018.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

2018an, lehen sektorea batez ere foru-administrazioarekin jarri da harremanetan bide elektronikoa erabiliz: ia 5 establezimendutik 4 (% 80,4). Beste aukerak dira, Eusko Jaurlaritza (% 41,3) eta Administrazio Zentrala (% 32,8). Sektore horretan, alabaina, administrazio elektronikoaren bidez harremanak edukitzeko azken aukerak toki-administrazioa (% 7,6) eta Europar Batasuna (% 3,1) izan ziren.


Azterketa 10 enplegu edo gehiago dituzten establezimenduetara mugatuta, ikusten da 10etik 9k izapide elektronikoak proportzio berean egiten dituztela foru-administrazioekin eta Administrazio Zentralarekin; % 68,1ek autonomia-erkidegokoarekin eta % 25,9k toki-administrazioarekin.

G.5.3.a Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten establezimenduak, administrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012- 2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

G.5.3.b Azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduak, administrazio mota eta urtearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2012-2018. %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

Alde batetik, azpimarratu behar da lehen sektoreko establezimenduen arteko distantziak nabarmen egin duela behera administrazio publikoekin harremanetan jartzeari dagokionez, eta gainerako sektore ekonomikoekin alderatuta: 2018. urtean beste sektore ekonomikoen % 93k hartu zuten bide hori eta lehen sektorekoen % 85,1ek. Hiru urte lehenago, establezimendu guztiak % 87,8 ziren, eta lehen sektorekoak % 35,2.⁶

TAU 4.c Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018. %

	Establezimenduak. Guztira						10 lanpostu edo gehiagokoak					
	Guztira	Eusko Jaurjaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk	Guztira	Eusko Jaurjaritza	Foru aldundiak	Toki-erakundeak	Administrazio Zentrala	Europar Batasuna eta beste batzuk
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	85,1	41,3	80,4	7,6	32,8	3,1	98,5	68,1	93,3	25,9	92,6	5,2
Informazioa lortzeko	48,3	30,0	41,9	6,3	6,2	2,3	77,0	60,0	57,8	18,5	34,1	4,4
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	46,5	23,6	41,5	3,2	4,1	1,5	71,9	48,9	54,8	16,3	23,0	3,7
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	38,4	13,6	33,8	3,0	3,5	0,7	68,9	44,4	49,6	17,0	20,0	2,2
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	40,8	7,8	36,5	1,9	3,6	1,0	67,4	37,0	45,9	8,9	23,0	0,7
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	2,1	0,7	1,7	0,3	0,2	-	17,0	8,1	13,3	3,7	1,5	0,7
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	29,5	-	-	-	29,4	0,4	87,4	-	-	-	87,4	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	10,5	-	9,7	-	0,9	0,1	68,9	-	60,0	-	11,1	-
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	32,0	-	31,2	-	0,7	0,3	86,7	-	79,3	-	8,9	-
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	1,4	-	-	-	1,1	0,3	14,8	-	-	-	14,8	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	33,0	0,8	32,3	0,0	0,2	0,0	19,3	3,7	16,3	-	1,5	-


% 29,5ek Gizarte Segurantzako kotizazioak aitortzen dituzte –2015ean baino 9,4 ehuneko puntu gehiago–, eta % 32k BEZa kudeatzen dute –14,1 ehuneko puntu gehiago–. Gainerako sektore ekonomikoetan % 65,8ra eta % 80ra heldu ziren, hurrenez hurren.

10 enplegu edo gehiago dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako eta arrantzako ustiatzeen egoera oso bestelakoa da sektoreko guztizko datuen maiztasunarekin alderatuta; ekonomiaren beste esparru batzuetara hurbiltzen da. Izan ere, 2018an, lehen sektoreko establezimenduen % 98,5ek erabiltzen zuten administrazio elektronikoa, baita gainerako sektore ekonomikoen % 95,7k ere.

Gizarte-kotizazioetan eta BEZaren aitortzean, 10 enplegu edo gehiagoko lehen sektorearen estratua zazpi portzentaje-puntu handiagoa izan zen gainerako sektoreetako estratu berarekin alderatuta. Ez da gauza bera gertatzen sozietateen gaineko zergarekin: gainerako sektoreen 6,6 ehuneko puntu gehiagok erabili zuten administrazio elektronikoa, lehen sektorearekin alderatuta. Eta prozedura oso bat izapidetzean 8,5 puntu gehiagok erabili zuten.

⁶ Ikusi 5. oharra

G.4.b Administrazio Elektronikoa erabili duten Lehen Sektoreko establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS



e-Administrazioa eta administrazio publikoak

Bost establezimendu publikotik lauk baino gehiagok harreman elektronikoa dute Eusko Jaurlaritzarekin

2016an egin zen lehen informazio-bilketa. Laginketa berezia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztietako establezimenduentzat⁷.

IKT ekipamenduak, Internetera sartzeko bideak eta merkataritza elektronikoa aztertzeaz gain, administrazio elektronikoari buruzko informazioa bildu zen. Gogoratu behar da enpresei zuzenduta dagoen Informazioaren gizarteari buruzko inkestarako erabiltzen den galde-tegi bera erabiltzen dela, eta bilketa aldi berean egiten dela.

IKT ekipamenduak, Internetera sartzeko bideak eta merkataritza elektronikoa aztertzeaz gain, administrazio elektronikoari buruzko informazioa bildu zen. Gogoratu behar da enpresei zuzenduta dagoen Informazioaren gizarteari buruzko inkestarako erabiltzen den galde-tegi bera erabiltzen dela, eta bilketa aldi berean egiten dela.

2019an, administrazio publikoen establezimenduak 4.142 ziren, eta horietatik 2.094k 10 enplegu edo gehiago zeukaten. Laginketa egin eta 900i egin zitzairen inkesta.

2019an, hamar establezimendutik bederatzik tramiteren bat edo kontsultaren bat egin zuten Interneten administrazio publikoen atarietan, % 93k, 10 enplegu edo gehiago dituztenetatik oso hurbil, % 94,6k.

Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoarekin, establezimendu publikoen % 84,8k tramitatzen edo bilatzen du informazioa; ondoren, administrazio zentralarekin, % 72,3k; foru-aldundiekin, % 64,3k; toki-erakundeekin, % 61,7k; eta Europar Batasunarekin, % 36,9k. Eskema hori, aldaketa txiki batzuekin, 10 enplegu eta gehiagoko establezimenduekin errepikatzen da.

2018 eta 2019 bitartean, foru-aldundiek (% 10eko igoera) eta administrazio zentralak (% 8,9) hobetu dute gehien trafikoa, administrazio elektronikoaren bidez, 10 enplegu edo gehiagoko erakunde publikoen gainerako establezimenduekin.


⁷ Eustat. Fitxa metodologikoa.

https://eu.eustat.eus/document/esia_e.html

- Administrazio Zentrala
- Eusko Jaurlaritza
- Foru-aldundiak
- Udalak
- Mankomunitateak eta partzuergoak
- Udalerrien elkarteak eta kuadrillak
- Toki-erakunde txikiagoak
- Erakunde autonomiadunak
- Beste entitate publiko batzuk (Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua)
- Sozietate kapitalaren gehiengoa administrazio publikoarena duten merkataritza-sozietateak
- Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea
- Etxeen zerbitzura lan egiten duten eta irabazi asmorik ez duten fundazioak eta erakundeak, administrazio publikoak baldin badu partaidetzaren gehiengoa.


Administrazio elektronikoa ere nabarmen hazi da Europar Batasunarekiko harremanetan, bai establezimendu publiko guztietan (% 8,8), bai 10 eta hortik gorako establezimenduetan (% 5,7).

G.21.a Administrazio Publikoko establezimenduak, guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, eta azken urtean Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena, administrazio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018-2019. Δ %



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI – Administrazioa

G.25 Administrazio Publikoen establezimenduek administrazio publikoekin izapideak egin behar dituztenak, zuzenean edo hirugarrenen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2019.%




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Lehen sektorea. IGILS

Administrazio publikoetako establezimenduak gainerako establezimenduekin alderatuta bereizten dituen elementuetako bat honako hau da: hirugarren

pertsonak edo erakundeak gutxiago erabiltzen direla administrazio elektronikoa kudeatzeko.


Lau establezimendu publikotik batek, % 24,8k, hirugarrenen laguntza behar izan zuen administrazio-kudeaketa bat egiteko, eta bostetik batek, % 22,3k, 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen artean. 2018rekin alderatuta, 5,7 ehuneko puntu igo da beste erakunde publiko batzuekin elektronikoki kudeatzeko laguntza behar duten establezimenduen taldea –gutzizkoak –.

G.22.a. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2019.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

G.22.b. Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio Elektronikoa erabili duten 10 lanpostu edo gehiagoko Administrazio Publikoen establezimenduak administrazio mota eta urtearen arabera. 2016-2019.%



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

Establezimendu publikoek e-Administrazioaren eskaintzari dagokionez gehien erabiltzen dituzten elementuak hauek izan ziren: informazioa bilatzea (% 88,5),

formularioak deskargatzea (% 81,6), betetako formularioak itzultzea (% 77) eta prozedura baten izapidetze osoa (% 74,3).

Aurreko urtearekin alderatuta, prozedura baten teletramitazio osoak gora egin zuen, 4,4 ehuneko puntu, eta lizitazio elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteak, 6,6.

TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2019. %

	Guztira				Eusko Jaurlaritza				Foru aldundiak			
	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	87,7	92,8	92,1	93,0	76,3	83,1	82,9	84,8	57,1	64,4	63,0	64,3
Informazioa lortzeko	82,2	89,4	89,0	97,9	72,2	79,3	78,0	87,2	50,9	57,9	56,7	64,2
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	79,2	85,8	82,6	90,2	67,4	74,5	73,0	80,6	49,2	54,5	52,5	57,0
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	77,9	79,3	78,7	85,2	66,3	67,2	69,9	76,4	45,1	47,8	48,9	54,0
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	64,9	61,5	69,9	82,2	50,2	51,5	59,5	65,1	30,8	34,7	37,9	47,0
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	14,0	10,8	19,8	29,1	10,0	7,1	12,7	19,3	3,6	3,7	6,8	8,8
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	43,3	50,3	50,1	62,7	-	-	-	-	-	-	-	-
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	23,8	24,8	27,2	33,1	-	-	-	-	20,8	22,7	24,0	27,0
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	29,4	29,2	32,4	40,5	-	-	-	-	26,6	28,1	28,5	34,5
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	5,3	4,9	6,8	10,2	-	-	-	-	-	-	-	-
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	6,5	8,6	7,7	8,2	2,2	5,6	4,2	4,1	2,9	2,9	3,5	3,8

TAB. 21 Administrazio Elektronikoa erabili duten Administrazio Publikoen establezimenduak. Guztira eta 10 lanpostu edo gehiagokoak, izapideen motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2019. % (Jarraip.)

	Toki-erakundeak				Administrazio Zentrala				Europar Batasuna eta beste batzuk			
	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019
HERRI ADMINISTRAZIOA ERABILI DUTE	42,3	53,0	60,4	61,7	61,9	67,8	69,3	72,3	29,2	38,4	34,1	36,9
Informazioa lortzeko	39,9	49,0	54,9	63,8	46,4	55,3	53,9	63,2	24,9	31,5	26,9	34,6
Inprimakiak eta formularioak lortzeko	30,9	36,9	41,6	50,4	41,7	47,2	44,9	53,2	19,5	25,4	24,6	28,0
Inprimakiak eta formularioak bueltatzeko	25,3	29,3	35,0	43,5	36,5	42,4	42,6	49,9	15,7	20,5	19,9	25,0
Administrazio prozedura bat modu erabat elektronikoa izapidetzeko	12,9	16,9	20,5	25,2	29,1	32,7	34,7	42,5	8,8	14,8	16,2	18,5
Lizitazio-elektronikoko sistema batean proposamenak aurkezteko (e-procurement)	1,0	1,3	4,8	5,5	3,4	3,1	9,0	13,2	1,8	1,1	4,6	5,5
Langileen pertsonen kotizazio sozialak adierazteko	-	-	-	-	42,3	48,4	49,9	62,3	1,4	1,9	0,2	1,7
Sozietate-Zergaren adierazpenerako	-	-	-	-	3,4	2,1	3,6	6,7	0,2	0,0	0,0	0,3
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) adierazpenerako	-	-	-	-	3,2	1,5	4,1	6,4	0,2	0,0	0,1	0,3
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazteko	-	-	-	-	5,1	4,6	6,8	9,9	0,2	0,2	0,0	1,1
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	0,1	0,0	2,7	3,1	3,0	4,0	3,8	3,7	0,5	0,3	0,6	0,8

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta - Administrazioa. IGI - Administrazioa

Azpimarratzekoa da, halaber, Gizarte Segurantzako kotizazioen aitopenen igoera (6,6 ehuneko puntu) eta BEZarena (4,4 gehiago urtebetean).

Azken lau urteak kontuan hartuta (eskuragarri dagoen serie osoa hartzen dute), igoera nabarmenak lizitazio-prozeduren izapidetze elektronikoa gertatu dira (12,4 ehuneko puntu gehiago), Gizarte Segurantzari egindako adierazpenetan (13,4 puntu) eta espediente baten izapidetze osoan (9,4 puntu gehiago).

Oraindik ere ikusten da izapidetzen den erakunde mota guztietan jarduera ohikoena informazioa bilatzea dela, Eusko Jaurlaritzarekin % 87,2 izatetik foru-aldundien, toki-erakundeen eta estatuko administrazioaren % 63-64 izatera. Azken urteko hazkundeak: 7,4 ehuneko puntu foru-aldundiekin, eta 9, Eusko Jaurlaritzarekin, toki-erakundeekin eta administrazio zentralarekin.

Formularioak deskargatu eta administrazioetara itzultzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritza nabarmen da gainerako erakundeei dagokienez: % 80,6 eta % 76,4, hurrenez hurren. Gainerako erakundeen kasuan, % 50 eta % 65 artean ibili da, baina joerak erakusten dute igoera nabarmena izan dela, 6 ehuneko puntu

eta 9 bitartean urtebetean, foru-aldundien kasuan izan ezik: 4,5 ehuneko puntu eta 5,1 gehiago, hurrenez hurren, galdetegiaren deskargan eta itzulketan.

Izapidetze osoa elektronikoki egiteari dagokionez, nabarmentzekoa da erakundeen % 65,1ek Eusko Jaurlaritzarekin egiten duela, % 47k foru-aldundiekin eta % 42,5ek administrazio zentralarekin. % 25,2k baino ez du lortzen tokiko erakundeekin. 2018tik 2019ra bitartean, igoera handiena (9,1 ehuneko puntu) foru-aldundiei dagokie, ondoren, administrazio zentralari (7,7) eta Eusko Jaurlaritzari (5,6). Toki-erakundeei dagokien igoera % 4,8 da.

Langileen kotizazioen aitorpena erakundeen % 62,7k egiten dute, eta azken urtean 12 ehuneko puntu baino pixka bat gehiago igo da.

Establezimendu publikoen herenak baino zertxobait gehiagok (% 36,9) informazioa jaso edo izapideak egiten dituzte Europar Batasunarekin eta beste administrazio batzuekin; 7,7 ehuneko puntu igotzen da azken urtean informazioa bilatzen duen kolektiboa. Ia bosten batek, % 18,5ek, prozedura bat osorik izapidetzea lortu du, 2018an baino 2,3 ehuneko puntu gehiago.




e-Administrazioa eta pertsonak

2020an, EAEn bizi ziren 16-74 urteko biztanleen erdiek administrazio elektronikoa erabili zuten

Administrazio elektronikoen erabilerari dagokionez, genero-aldea desagertu egin da 2020an

EAEn bizi diren 16-74 urteko 809.700 pertsonak erabili zituzten azken 12 hilabeteetan (2019ko lehen hiruhilekoaren eta 2020koaren artean) ⁸administrazioek herritarrekin elkarreragiteko eskaintzen dituzten aukeretako batzuk, hau da, guztien % 50,1.

G.6 Azken 3 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2020, azken 12 hilabeteetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2020. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

2005az geroztik, administrazio elektronikoen erabiltzaileen kopurua internauten kopurua baino gehiago hazi da. Joera hori 2010 eta 2011 bitartean hautsi zen, erabiltzaileen kopurua % 2 soilik igo baitzen, eta internautena, aldiz, % 8,4. 2011 eta 2012 bitartean, hazkundera internauten % 1,7ra murriztu zen, hots, 2003az geroztik gehikuntza txikiena izan zen. Gertaera horrek, krisi-egoerarekin batera, hein batean azaldu dezake zergatik jaitsi zen % 4,3 administrazio publikoekin harremanetan jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua.

⁸ 2003tik 2008ra bitartean, IGIFek urteko 2. eta 4. hiruhilekoetan jasotzen zuen informazioa; beraz, administrazio elektronikoen erabilerari emandako erantzunerako erreferentziako hiruhilekoa inkesta egiten zen urtean sartzen zen (azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen da). 2009tik aurrera, informazioa urteko lehen hiruhilekoan jaso da; hortaz, erabileraren erreferentzia-aldia aurreko urteko azken hiruhilekoa da. Inkesta egin zen urtea kasu guztietan adierazten da. 2015ean, bilketa-aldia urtearen lehen erdi osora zabaldu zen; horrenbestez, azken hiru hilabeteetako erabileraz galdetzen denez, denbora-erreferentzia 2014ko 4. hiruhilekotik 2015eko 1. hiruhilekora bitartekoa da. 2016az geroztik, administrazio elektronikoen erabileraz galdetzeko aldia azken hamabi hilabeteak dira. 2016tik aurrera, eskatutako Administrazio Elektronikoen erabileraren aldia azken hamabi hilabeteetan kokatzen da, eta bilketa urteko lehen hiruhilekoan egiten da.

Aintzat hartu behar da azken hiru hilabeteetan Interneten sartu diren pertsonen zaila administrazio elektronikoz.


2014 eta 2015 bitartean, internauten kopuruak gora egin zuen —80.000 gehiago—, eta, horrekin batera, e-Administrazioaren erabiltzaileen kopurua % 18,6 hazi zen.

2016an eta 2017an, aldiz, erabiltzaileen kopurua jaitsi egin zen, baina laginen aldaketa metodologikoen ondorioz; beraz, ez da aintzat hartu behar.


Bilakaera desitxuratu horrek ez du galarazten «Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -Familiak » biltzen dituen ezaugarri batzuen joerak eta banaketak analizatzea.

2019tik 2020ra bitartean, e-Administrazioko zifra absolutuen hazkundea 57.100 erabiltzailekoa izan zen, 3,4 ehuneko puntu gehiago. Internauten kopurua % 3 igo zen bitartean, administrazio elektronikokoaren erabiltzaileena, % 7,6.

G.7 Azken 3 hilabetetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak. (2016-2020, azken 12 hilabetetan) Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2020. %



G.8 Internet erabiltzen duten 16 eta 74 urte arteko biztanleen eta azken hiru hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili dutenen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2020. Δ%



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak – IGIF

Sexua kontuan hartuta, eta internauten edo administrazio elektronikoa erabiltzen duten biztanleen ehunekoaren arteko aldea gizon eta emakume guztiekiko, hurrenez hurren, kalkulatzen bada, gorabehera handiko aldiak egon arren, 2006 eta 2013 artean, alde hori murrizteko joera mantso eta argia ikusten da.

Azken urte horretatik aurrera, internauten eta erabiltzaileen genero-arrailek murrizteko joera argia erakutsi dute.

2003an, internauten arraila 6,2 puntu negatibora heldu zen, eta 2018an -2,5ean geratu da. Zenbatespen lineala erabiliz gero, hau da, ausazko aldakuntzak alde batera utzita markatzen bada joera, 2003ko 6,2 puntu negatiboetatik ia 3 puntu negatibotara pasatu zen.

Azpiparratu behar da internauten artean arrail handiagoa dagoela administrazio elektronikoen erabiltzaileen artean baino. Horrek administrazioekin beste kanal batzuen bitartez harremanetan jartzean pertsonen artean izaten den egoera bat berresten du: emakumeak gizonak baino maizago arduratzen dira administrazio-kudeaketek.

Izan ere, kopuru absolututan, administrazio elektronikoa erabiltzen duten emakume baino gizon gehiago zenbatu ditu 2019ko inkestak: 396.700 emakume eta 355.900 gizon; hots, 3,7 puntuko genero-arraile positiboa emakumeen alde.

Zifra horiek handitu egin dira 2020an: 433.800 emakume eta 375.900 gizon administrazio publikoekin harremanetan jartzen dira Internet bidez. Izan ere, gehikuntza osoaren bi herenak emakumeei dagozkie.


Muga 2017an gainditu bazen ere, 2019an handitu egin da internauta gizonen eta emakumeen arteko alde absolutua: aipatutako lehen urtean 6.400 emakume internauta gehiago zenbatu ziren gizonak baino, 2019an 13.200 gehiago eta 2020an 22.700 gehiago.

Telefono mugikorra sartzeak eta administrazio elektronikoen informazioak eta izapideak euskarri horretara egokitzeak ere bilakaeraren zati bat azalduko lukete.


Joerak eskaintzen duen estimazio linealari kasu eginez gero, 2003an -3 puntuko aldea hautematen da (internauten kasuan dagoenaren erdia) eta 2019an emakumezko eta gizonezko erabiltzaileen tasak berdintzera iritsi ziren, 2020an, berriz, emakumeak gehiago izan dira. Beraz, datu horiekin, desagertutzat jo daiteke administrazio elektronikoen dagoen genero-aldea.

Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.12.a Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten 16-74 urte bitarteko biztanle internauten genero-arraila. Joerak. EAE. 2003-2020. E.P.%




G.12.b 16-74 urte bitarteko internauten edo Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten pertsonen kopuruaren diferentzia, sexuaren arabera. EAE. 2003-2020. Milak.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

G.13. Azken 12 hilabeteetan Administrazio Elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak, erakunde motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2016-2020. %



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Inkestaren beste ezaugarri garrantzitsu bat, azken urteotan nolabaiteko egonkortasuna duena, herritarrek elkarrengaitan erabiltzen duten administrazio motan datza.

Baiezta daiteke 2020an e-Administrazioa erabiltzen duten lau pertsonatik hiruk, % 75,6k, Eusko Jaurlaritzarekin eta bere ingurune instituzionalarekin⁹ erabiltzen dutela; hau da, 612.000 pertsona, 2019an baino 15.200 pertsona gehiago.

Foru-aldundiek % 29,8 lortu dute (241.000 erabiltzaile).

Toki-erakundeek % 29 lortu dute, eta 235.000 pertsona daude eurekin harremanetan elektronikoki.

Administrazio zentralak e-Administrazioa erabiltzaileen % 25,4 biltzen ditu, hau da, 205.000 pertsona.


Europar Batasunak eta beste administrazio publiko batzuek % 3,1 biltzen dute, hots, 25.000 erabiltzaile.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoren batera Internet bidez formularioak bidali zituzten biztanleen ia % 5ek hirugarren pertsonen bidez egin zuten, 2019an baino 2,3 ehuneko puntu gutxiago.

Ezagutza-maila, erabilera-maiztasuna eta fideltasuna zenbatesteko, Eustaten inkestak bestelako informazio osagarria ere ematen du: inkestatutakoek bisitatu eta gogoratzen dituzten webguneak¹⁰.

⁹ Eusko Jaurlaritzan sartzen diren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, enpresa-sektore publikoa, partzuergoak, fundazioak eta abar.

¹⁰ IGIFen galdeketa, bisitatutako azken 5 webguneak biltzen dira, inkestatutako uneari dagokionez. 2015az geroztik, lehen hiruhilekoan, azken 3 hilabeteetan Internetera konektatu diren pertsonak erantzuten dute.



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak - IGIF

Alde batetik, azpimarratu behar da 2020an (edozein motatako webguneei)¹¹ egindako aipamen guztien guztien % 12,9 edozein administrazioen atari publikoei dagozkiela; hortaz, 1,7 portzentaje-puntu hazkunde egon da 2019. urtearekin alderatuta.

Edozein espazio-eremutako atari publikoei egindako lau. aipamenetatik hiru — % 74,3— euskal administrazioei eta sektore publikoari dagozkie; 9,7 ehuneko puntu galdu badira ere 2019ekin alderatuta.

Oro har, EAEko administrazioen eta sektore publikoaren webguneei egindako aipamenak soilik aintzat hartuta, ikusten da % 72 EAEko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen webguneei dagozkiela. Kopuru horretatik, 47 portzentaje-puntu euskadi.eus webguneari eta hari lotutako atariei dagozkie; 25, berriz, erakunde autonomoei eta sozietate publikoei.


Foru-aldundien atariak EAEko sektore publiko osoko aipamenen % 9,1 eta udalerrikoen % 5,5 biltzen dituzte. Unibertsitate publikoak (EHUK) EAEko atari publikoen aipamenen % 12,2 jasotzen ditu, eta UNEDek % 1,2.

2019. urtearekin alderatuta, 3,1 portzentaje-puntu hazi dira Eusko Jaurlaritzaren atarien aipamenak, eta 2,4 jaitsi erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen aipamenak.

Foru-aldundien kasuan ere 1,7 ehuneko puntu jaitsi da, eta udalen atariei buruzko aipamen-kopuruari, ordea, eutsi zaio.


¹¹ Guztizko kopurutik ezabatu dira gizarte-sareei (Facebook, Twitter, YouTube), bilatzaileei (Google, Yahoo...) eta bat-bateko mezularitzari (WhatsApp) buruzko aipamenak, zeinak bildutako guztien % 51,9 izan baitira 2019an.

G.9. 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten WEB gune publikoen aipamenak, administrazio-motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2020. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF

G.10 16 eta 74 urte arteko biztanleek egin dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko WEB guneen aipamenak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005-2020. Milak



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. IGIF



E-ADMINISTRAZIOKO TERMINOEN GLOSARIORAKO ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOARI BURUZKO ESTADISTIKETARAKO ESTEKAK

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN KONTZEPTUEN GLOSARIOA](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [ZERBITZU PUBLIKO ELEKTRONIKOEN GAINEKO ESTADISTIKA ESPE](#)

EUSKO JAURLARITZA. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. [E-ADMINISTRAZIOAREN BAROMETROA. BEA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA. FAMILIAK.IGIF](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA - ENPRESAK. IGIE](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN INKESTA ADMINISTRAZIOAN. IGIA](#)

[EUSTAT. INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA - LEHEN SEKTOREA.IGILS](#)

[BESTE ITURRI BATZUK](#)

